

23. atala URRIJENA

Iurretako historia ezagutzeko asmotan dantzarien arrastoei se-gika zebiltzan Aritz eta Jone neba-arreba iurretarrak. Iurretan egiten diren dantza ezberdinak ezagutu zituzten eta baita San Migel jaietako nondik norakoak ere.

- Hala ere ez dizut Iurretako jai berezi-berezi baten berri eman oraindik Aritz – Hasi zen neska.
- Hara! Zer jai?
- Bost urtean behin bakarrik antolatzen den bat, herriko dantzari guztiok batera dantzan egiten duguna... Ea asmatzen duzun?
- Bai! – Esan zuen Aritzek ia garrasika – Urrijena!!!
- Hori da Aritz! 5 urtean behin Iurretako dantzari gazte nahiz zahar guztiok batu eta batera osatzen dugu Urrijena, San Migel jaiak amaitu eta hurrengo igandean.
- Eta noiz hasi ziren Iurretarrak jai hau ospatzen Jone?
- 1989. urtean egin zen lehenengo Urrijena gizonek osatutako 16-18 dantzari zortzikoterekin.
- Gizonak bakarrik Jone?
- Hala da Aritz. Lehen Urrijena-n Dantzari-dantza eta gizonek egindako erregelak soilik dantzatzen ziren eta emakumeek ez zuten parte hartzen. Gainera gero gizonezko dantzari hauek bazkaltzera joetan ziren eta beraz gainerako herritarrek ez zuten jaiaz gozatzeko aukerarik izaten.
- Baina hori aldatuta dago orain! – Bota zuen Aritzek amonru puntu batekin.
- Emakumeok beti aldarrikatu izan dugu gure lekua plazan eta gauzak aldatzen hasi ziren astiro-astiro. 2009ko Urri-

jenan gizon batzuek uko egin zioten dantzarien bazkari horretara joateari jai hark herritarragoa izan behar zuela aldarrikatuz eta hurrengo Urrijenan 2004. urtean emakumeek ere parte hartzea lortu zuten Gorulari dantzak plazaratuz eta dantzarien bazkaria herri bazkari bihurtu zen. 2019. urteko Urrijenan, emakumeok Dantzari-dantzan parte hartzea ere lortu genuen eta jai igandetik larunbatera aldatuz festaz gozatzeko aukera handiagoa izan zen.

- Itzela Jone! Esker-rak lan eginda gauza batzuk aldatzea lortzen den!

ARIKETA:

- Lehenengo Urrijena hartan 16 dantza talde osatu baziren zenbat txapel gorri ikus zitezkeen plazan?

